

IRUDIKA BIDAIA-GIDALIBURUA

Irudika 2020 jaialdiak bidaia bat egingo du mundu osoan, zuri eduki eskusiboak ekartzeko Uruguai, Frantzia eta Quebecetik. **Edizio birtual berezi bat**, zeinetan izena eman duzuenok bakarrik eskuratuko duzuen egitaraua.


Edukiak prestatu ditugu hainbat hiri eta herritako estudio, tailer eta liburu-dendetatik, eta dena estreinatuko dugu **Irudika jaialdian, urriaren 29tik 31ra**. Topaketaren ostean aurrez aurreko hitzordu profesionalak ere egingo ditugu bideo-deien bidez.

Irudika Komunitatea presente egongo da galeria publiko bat osatuz zuen lanekin eta agente, editorial zein edizio errepikaezin honetan parte hartuko duzuen pertsona guztien profilekin. Aukera izango duzue harremanetan jartzeko Komunitateko gainerako kideekin, elkar ezagutzeko eta etorkizunerako bidaia, topaketak eta asmo onak lantzeko.

SORTU ZURE PROFILA IRUDIKA KOMUNITATEAN

Zure erosketa egiten duzunean posta elektronikoa bat jasoko duzu zure kontua balidatzeko. Hortik aurrera posible izango duzu zure Gune Pertsonalean sartzea, bertatik ikusteko Irudika Komunitate osoa eta zeure burua komunitateari ikusarazteko.

Une horretatik aurrera zure profila sortzen hasiko zara **Irudika Komunitatean** zure lanari buruzko informazioarekin, web orrirako edo sare sozialetarako estekekin eta zure bost lanen lagin batekin. **Profil publikoa izango da, edonorentzat ikusgai egongo dena irudika.eus webgunean** eta Komunitate barruko zure espazioa bezala funtzionatuko duena. Nahi adina bider editatu ahal izango duzu zeure Gune Pertsonaletik.



Markatu ditugu hainbat eremu profesional, jarduera hasi zenueneko urtea, e.a., beste pertsona batzuek modua izan dezaten bilaketak egiteko euren interesen arabera. **Gomendatzen dugu espazio hori ahalik eta egiatiena izatea, benetako tresna baliagarria izan dadin agente, profesional eta ilustrazioan interesatutako pertsona guztientzat.**


Kontuan izan Komunitatearen barruan hainbat hizkuntza daudela. Dakizkizun hizkuntzetan idatz dezakezu zure lanari buruz, edo zure azalpenen zati bat beste hizkuntza batera itzularaz dezakezu beste herrialdeetako pertsonen gehiago jakin dezaten zutaz.

SARTU ZURE GUNE PERTSONALERA

Espazio honetantxe gertatuko dira gauza guztiak. Gune honetan kontsultatu ahal izango duzu Uruguai, Frantzia, Quebec eta Euskadira bisitetan prestatu dugun eduki guztia. Posible izango duzu baita ere hitzordu profesionalak eskatzea agenteekin, eta zeure postontzi pertsonala kontsultatu eta erabiltzea Irudika Komunitateko gainerako kideekin komunikatzeko.

Hemendik editatu ahal izango duzu zure profil publikoa nahi bezainbat aldiz, eta hemendik bisitatu ahal izango duzu galeria Komunitateko beste artistak eta agenteekin batera.

Gomendatzen dizugu beti logeatuta egotea, zure nabigatzaileko “Gogoratu pasahitza” aukera gaitzea eta kredentzialak gordetzea edozein gailutatik sartu ahal izateko. **Zure posta elektronikoa eta pasahitza dira Irudika 2020an sartzeko giltza.**



NOIZ ETA NON IKUSI AHAL IZANGO DUT IRUDIKA JAIALDIKO EDUKIA?

Irudika 2020 jaialdiko edukia bilduko duten bideoak urriaren 29 eta 31 bitartean estreinatuko dira, eta hilabetez ikusi ahal izango dituzu zure Gune Pertsonaletik.

Edukiak zuzenean estreinatzen direnean posible izango duzu jakitea beste zein ikusle dagoen konektatuta eta zuzenean hitz egitea elkarrizketei eta edukiei buruz Irudika Txatean.

NOLA ESKA DITZAKET HITZORDU PROFESIONALAK?

Aurten ere aukera izango duzu hitzordu profesionalak eskatzeko Irudika 2020 jaialdiaren kartela osatzen duten profesional eta agenteekin. **Zure Gune Pertsonalaren bitartez aukeratu ahal izango duzu norekin hitzartu.** Pertsona horiek Irudika Komunitatean duzun profila jasoko dute eta, behin eskaera guztiak jaso ondoren, hainbat ilustratzaile aukeratu dituzte bideo-deiak egiteko. Ikaragarriko aukera berrikuspenak egiteko, proiektu berriak aurkezteko nahiz zalantza profesionalak argitzeko. **Prestatu ongi zure profila eta egin zure eskaerak azaroaren 1etik 5era.**

Behin agenteek profilak aukeratutakoan, mezu bat jasoko duzu zure hitzorduen berri emateko eta esateko zein egun-ordutan izango diren, beti ere azaroaren 15etik aurrera. Informazio horrekin batera, bideo-deiaren esteka jasoko duzu. Ez kezkatu memoria txarra baduzu, nahi adina aldiz kontsultatu ahal izango dituzu hitzorduak zure Gune Pertsonalean. Oroitarazpenak ere bidaliko dizkizugu zure posta elektronikora.

Momentua iristen denean, nahikoa izango duzu Hitzordu Profesionalen panelera sartzea (zure Gune Pertsonalean) eta klik egitea bideo-dei sistema irekiko duen estekan. 15 minutuko hitzordu bat izango duzu jitsi bidez. Mesedez, segurtatu zure kamera eta mikrofonoa ondo dabiltzala.

Hitzorduak azaroaren 23tik 27ra bitartean egingo dira. Oso garrantzitsua da tarte bat egitea zure agendan hitzordu pertsonal horretarako. Hitzorduaren eguna zuzentzat desegokia balitz, jarri harremanetan Irudika-rekin eta saiatu gara arazoa konpontzen.

ZURE POSTONTZI PERTSONALA (Mezu bat daukazu?)

Kontaktua da Irudika jaialdiaren helburua, eta helburu horri eutsi nahi izan diogu edizio birtual berezi honetan. Hitzordu profesionalaz gain, barne-mezularitza sistema bat diseinatu dugu topaketako gainerako parte-hartzaileekin hitz egiteko.

Nabigatu Komunitateko bilatzailean, eta profilen bat interesatzen bazaizu edo aurkitu duzun norbaitekin hitz egin nahi baduzu, klikatu "Mezua" ikonoan eta jar zaitez harremanetan. Erantzun eta mezu guztiak zure Gune Pertsonalean kontsultatu ahal izango dituzu. Ez ahaztu tresna pertsonal eta pribatu bat dela. Horregatik, errespetatu beste pertsona batzuen espazioa, eta erantzunik ez emateko aukera.

* Urritik aurrera erabilgarri.

JARRI HARREMANETAN IRUDIKArekin

Zalantza, iradokizun edo arazoren bat izanez gero, zure zerbitzura gaude Komunitatean bertan daukagun profilean edo info@irudika.eus posta elektronikoa.

Irudikan ikusiko gara!

